

PRENTSA OHARRA: 2026.08.06

Dantza garaikideko sei euskal proposamen aurkeztuko dira Libourneko Fest'Arts eta Edinburgoko Fringe jaialdietan

- **Amaia Elizaran & Neonymus, Komerobi Produkzioak eta Ertza** abuztuaren 6tik 8ra ariko dira Fest'Artsen, Frantziako kaleko arteen jaialdi nagusietako batean
- **Arte eszenikoetan nazioarteko erreferentea den Edinburgoko Fringe jaialdiak Erain eta Helena Wilhelmssonen proposamenak** hartuko ditu abuztuaren 7tik 16ra
- **Parte hartze hauek Etxepare Euskal Institutuak Fest'Arts eta Dance Base-ekin euskal dantza garaikidearen nazioarteko proiektzioa** sustatzeko duen lankidetzaren emaitza dira

Donostia, 2026ko abuztuaren 6a. – Dantza garaikideko sei euskal proposamen ikusi ahal izango dira datozen egunetan Europako arte eszenikoen nazioarteko bi hitzordu garrantzitsutan. **Amaia Elizaran & Neonymus, Komerobi Produkzioak eta Ertza** Libourneko (Frantzia) Fest'Arts jaialdian ariko dira, abuztuaren 6tik 8ra; **Erain eta Helena Wilhelmsson**, berriz, Edinburgoko (Eskozia) Fringen izango dira, abuztuaren 7tik 16ra. Bi parte hartze hauek Etxepare Euskal Institutuaren babesarekin, eta Institutuak nazioarteko jaialdi, erakunde eta sektoreko profesionalekin euskal sorkuntzaren ikusgarritasuna eta kanpo proiektzioa sustatzeko dituen lankidetzaren parte dira.

Hiru euskal proposamen Fest'Artsen

Abuztuaren 6tik 8ra, Libourneko kaleak antzerki, dantza, zirku eta sorkuntza garaikidearen agertoki bihurtuko dira berriro ere, **Fest'Arts** jaialdiari esker; Frantzian egiten den kaleko arteen jaialdi nagusietako bat.

Lehen emanaldia **abuztuaren 6an** izango da, **Amaia Elizaran & Neonymus**-en eskutik. *Iraun* aurkeztuko dute. Proposamenak Amaia Elizaran dantzari eta koreografoa eta Neonymus, Silberius de Ura, diziplina anitzeko artistaren musika proiektua, batzen ditu. Ahotsak, antzinako instrumentuak eta makina modernoak uztartzen dituen doinu batek lotuta,

dantzariak eta musikariak konposizioaren eta inprobisazioaren arteko elkarriketa moduko bat sortzen dute. Dantza garaikidetik abiatuta, gorputzak uneoro bere burua berrasmatzeko duen gaitasuna aztertzen du piezak. Bi emanaldi eskainiko dituzte, 11:00etan eta 19:00etan, Les Quaisen.

Abuztuaren 7an, Komerobi Produkzioak konpainiaren txanda izango da, *Argilunak* lanarekin. Dantza, arte bisualak eta zuzeneko proiektzioak uztartuta, argiaren eta iluntasunaren arteko dualtasuna aztertzen du piezak, eta memoria eta dolua eraldaketarako eta berpizterako bide gisa lantzen ditu. Komerobi Produkzioak sorkuntza eszeniko garaikideko konpainia da, eta dantzaren, antzerkiaren, musikaren, arte bisualen eta poesiaren arteko elkarriketa ikertzen du bere lanetan. *Argilunak* 11:00etan eta 22:00etan ikusi ahal izango da Parking Max Linderren.

Ertza konpainiak emango dio euskal parte hartzeari. 2004an sortu zen, Asier Zabaleta dantzari eta koreografoaren zuzendaritzapean, eta **abuztuaren 8an** bi lan eramango ditu Libournera. 11:00etan *Un-we* aurkeztuko du, indibidualismoari, desparekotasunei eta gaur egungo esklabotza moduei buruzko hausnarketa; 20:30ean, berriz, *Otempodiz* izango da ikusgai, dantza urbanoa, tradizionala eta garaikidea uztartzen dituen proposamena, denbora ulertzeko eta bizitzeko modu desberdinak aurrez aurre jartzen dituenak. Bi emanaldiak Les Quaisen izango dira.

Euskal dantza garaikidea Edinburgoko Festival Fringera itzuliko da

Euskal dantza garaikidea **Edinburgh Festival Fringe** jaialdian ere izango da hilabete honetan, arte eszenikoen alorreko nazioarteko ekitaldi garrantzitsuenetako batean. Abuztuan, Eskoziako hiriburua mundu osoko konpainia, artista, programatzaile eta profesionalen topagune bihurtzen da, eta jaialdia nazioarteko lehen mailako erakusleiko bilakatzen da.

Etxepare Euskal Institutuak Eskoziako dantza zentro nazionala den **Dance Base**-ekin duen lankidetzaren baitan, aurten **Erain eta Helena Wilhelmsson** izango dira Edinburgon beren lanak aurkeztuko dituztenak. Bi proposamenak abuztuaren **7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16an** ikusi ahal izango dira Dance Basen.

Erain, Oier Zuñiga eta Lorea Bakero dantzariek osatutako konpainia gazteak, *Jarraibiderik gabe* aurkeztuko du. Piezak gorputzen eta objektuen arteko elkarriketa proposatzen du, eta materialak, jolasa eta eraldaketa sorkuntzarako tresna bihurtzen ditu. Zorroztasun fisikoa

interpretazio ugaritara irekitako iruditeriarekin uztartuz, etengabe eraldatzen ari den unibertsoa eraikitzen du lanak.

Bestalde, **Helena Wilhelmssonek**, duela zenbait urtetik Euskal Herrian bizi den dantzari suediarra, bere lehen lan koreografikoa aurkeztuko du: *Trembling Frequencies*, Jordi Vilaseca koreografoarekin batera sortua. Dantza eta mitoa uztartzen dituen bakarkako pieza da, eta, sirenen irudian eta haien ahotsaren erakarpen indar misteriotzuan inspiratuta, identitatea, bakardadea, amorrua eta norberaren ahots artistikoaren bilaketa bezalako gaiak jorratzen ditu.

Harreman berriak sustatzeko programa profesionala

Emanaldiez gain, **dantzaren eta kulturaren sektoreko profesionalei zuzendutako programa** ere antolatu da Fringen. Abuztuaren 4tik 9ra, Helena Wilhelmssonek dantza garaikideko eskolak emango dizkie dantzari profesionalei, Dance Baseren prestakuntza programaren barruan.

Gainera, **abuztuaren 11n, Basque Dance Pro Presentation** topaketa egingo da, programatzaileei eta, oro har, sektoreko profesionalei zuzenduta. ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko eta parte hartuko duten bi konpainietako ordezkariak euskal herriko dantzaren ekosistema eta *Basque Dance* katalogoa aurkeztuko dituzte. Saioan, halaber, euskal konpainien nazioarteko zirkulazioa sustatzeko Etxepare Euskal Institutuak eskaintzen dituen laguntza ildoak ezagutaraziko dira.

Fest'Arts eta Fringe jaialdietako parte hartzeek jarraipena ematen diete Etxepare Euskal Institutuak bi erakundeekin dituen lankidetzeari. Horien helburua da **euskal sorkuntzaren ikusgarritasuna sustatzea, harreman profesional berriak sortzea eta artista zein konpainiei nazioarteko zirkuituetarako sarbidea erraztea**. Lankidetzaren horiei esker, euskal artista eta konpainiek presentzia jarraitua izan du azken urteotan bai Fringen, bai Fest'Artsen.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era

berean, nazioarteko eragileekin lankidetza sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus